

erruz agertzen baitira. Baina ez dago esan beharrik jarraibidezkoek ez daukatela ez istoriorik, ez pertsonaien arteko joko-dinamikarik.

2. Testu motak

Erabileraz-eremua	Testu mota
Literatura	Alegia edo fabula, parabola...
Hedabideak	Publizitate-iragarkia, sukalde-errezeta, eguraldiaren iragarpena, horoskopoa...
Eremu soziala	Bandoa, legea, zirkulazio-kodea, araudia (eskolakoa, kiroletakoa, etab.), iragarki ofiziala, araubidea, gonbidapena, hitzarmena...
Eremu pribatua	Mandaturak, abisua, oharra, argibideak, gidak, aholkuak...
Eskola-eremua	Azalpen- eta erabilpen-gidak, azterketa (galdera), katalogoa, aholkua, problema, lan-plangintza...

3. Egitura

Elkarren segidan datozen maila bereko informazio-bloke gisa eratzen dira enuntziatuak, dela paraleloki, dela kronologikoki. Ez da sumatzen ideien arteko hierarkiarik —alde batetik, ideia nagusia(k), eta bestetik, bigarren mailakoa(k), alegia—, ezta argudiatzeko asmorik ere.

Hiru eredu dakartzagu:

- a) Publizitatea egiten duen jarraibidezko testua da bat (albokoa). Horretan, hartzaileak, lehiaketan parte hartzeko, testu horrek ematen dituen jarraibide edo argibideak hartu behariko ditu kontuan, eta horiei segi.
- Go-rago esan bezala, modu linealean egituraturik dator. Ideiak, denek ere maila bertsuko informazioa eskaintuz, paraleloki eta nolabaiteko kronologiaren ardatzean daude antolatuturik.

1.7.5. Jarraibidezko testua

1. Definizioa

Ekintza bat egitera bultzatu edo/eta egiten gidatzen gaituzten testuak dira. Instrukzioak, aginduak, betebeharrak, arauak... ematen dituzte eta hortien bidez jasotzailearen jokabidea erregulatzea dute helburu.

Azalpen-testuen sailko adar modura hartzen dute gramatikari batzuek, beren asmo behinena informazioa ematea delako. Aparteko nolakotasuna ere aitor dakioke, ordea, jarraibidezko testuen azken asmo edo intentzioa ez baita berez informazioa ezagutarazi edo ulertaraztea, ezpada eragitea. Hortxe dago gakoa.

Trazaz ariko bagina, narrazio-testuen antza dutela esan behariko genuke, jarraibidezkoetan ere urratsak askotan kronologikoki baitaude antolatuturik, eta denborazko antolatzaileak



